



HEGAZKINERA TRENEZ



Bost urteren buruan trenez joan ahal izango da Bilbotik Loiuko aireportura

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du bost urteren buruan trenez joan ahal izango dela Bilboko Zazpikaleetatik Loiuko aireportura, eta bederatzi minutu besterik ez du iraungo bidaiak.

Iñaki Arriola Garraio sailburua Artxandako tunelaren bi aldeek bat egin zuten momentuan izan zen Bilbon eta horrekin "proiektuaren zati zailena" egin zela azpimarratu zuen. Bilbo Zaharretik Matikora joango da trena, eta han Eusko Trenbidearekin egingo dute bat aireporturaino.

Trenez Bilbo eta aireportua lotzeko lanen lehenengo zatia da tunelarena eta 20 milioi euroko inbertsioa behar izan du. Sailburuak aurreratu duenez, Ola-Sondika geltokien arteko zatiaren azterlanak "aurki" amaituko dira, bigarren fasearen barruan, eta Sondika-aireportua, hirugarren fasean.

Vueling-k hegaldi berriak abiatuko ditu Bilbotik Kanarietara eta Easyjetek berea aurreratu du

Spanairren itxieraren ondoren, Vueling konpainiak Bilboko aireportuko hainbat lotura hartuko ditu. Horrela, martxotik aurrera, zuzeneko hegaldiak eskainiko dituzte Loiuko aireportutik Tenerifera, Las Palmasera eta Lanzarotera, 44, 99 eurotik aurrera, konpainiak berak iragarri duenez. Gainera, Bartzelonara egunero hiru hegaldi berri ere jarriko dituzte, eta, aurrerantzean, beraz, bederatzi hegaldi egongo dira Kataluniako hiriburura, egunaren arabera. Vuelingek azaldu du, orain arte bezala, 19 eurotik aurrerako prezioa mantenduko duela hegaldi hauetan ere.

Martxoaren 26an hasiko dira Teneriferako bidaiak, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan. Las Palmaserako lotura, berriz, martxoaren 27an abiatuko da, astearte eta larunbatetan. Loiú-Lanzarote zerbitzua, berriz, martxoaren 25ean jarriko da abian, igandetan eta ostegunetan. Ekainaren 23tik aurrera, zuzeneko hegaldiak jarriko ditu Vuelingek Bilbo eta Santorini, Berlin eta Paris artean.

Spanair hegazkin konpainiaren itxiera dela eta, Easyjet hegaldi merkeen konpainia aste honetan hasi da Bilboko aireportuan Madrilera hegaldiak egiten. Berez otsailaren 19an zen zerbitzua hastekoa, baina Spanairrek kiebra egin ostean, aurreratu egin du eguna.

Loiuko aireportua erabiltzen duten bost erabiltzailetatik batek Madrilera joateko erabiltzen du, eta urtean 850.000 dira.





MINBIZIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Elikadura on batekin, minbizien % 35a saihestu daiteke

Elikadura, aktibitate fisikoa eta alkohol edota tabakoaren kontsumoak gaur egun dauden minbizien % 40a eragin ditzake.

Herrialde garatuetan, fruta eta barazki gutxi jateak %10an jaitsi dezake minbizia izateko aukera. Eta are gehiago, elikadura osasuntsu batek %35ean jaitsi ditzake gaixotasun hori izateko aukerak.

Datu horiek, Julian Perez Gil Osakidetzako zuzendari orokorrak, Iñigo Sainz de Inchaustegui Minbiziaren Aurkako Espainiar Elkarte (AECC) ordezkariak eta elkarte horretako Gabriel Maria Otalora Bizkaiko gerenteak eskaini dituzte ostegun honetan Bilbon eginiko agerraldian.

Otalorak garrantzi handia eman nahi izan dio gaixotasun horren prebentzioari, elikadurak, aktibitate fisikoak eta alkohol edota tabakoaren kontsumoak gaur egungo minbizien % 40a eragin ditzakeelako. Gainera, aipatutako tabakoa gaixotasun hori saihesteko faktore garrantzitsuena da.

Azken aldian, tabakoaren eraginez sortutako minbizien kopurua igo egin da Euskadin, eta hori dela eta, Bizkaiko AECCk erretzen husten laguntzeko talde-terapiak sortu zituen.

Notarioek ezkontzak egin ahal izango dituzte

Alberto Ruiz-Gallardon Espainiako Gobernuako Justizia ministroak iragarri du lege bat sortuko duela notarioek ezkontzak eta dibortzio adostuak egin ahal izateko.

Izan ere, Gallardonek kritikatu egin du banandu nahi diren eta horretan ados dauden bi pertsonak espediente judiziala abiatu behar izatea, dibortzioa notario aurrean ofizial egin beharrean.

"Berdin gertatzen da ezkontzekin. Alkateek ezkontzak egin baditzakete, zergatik notarioek ez?", galdegin du.

Gaeko estropada bat antolatu da Bilboko itsasadarrean otsailaren 11n

Deustuko Arraun Taldearen Bilbo-Tecuni Gaeko I. Estropada antolatu du Bilboko itsasadarreko uretan otsailaren 11rako, 19:30etik aurrera, eta traineruek gaeko lehiaketa batean hartuko dute parte lehenengo aldiz.

Gaeko estropadaren formatu berria da eta traineruak inguru paregabeen bilduko dira ibilbidea gidatuko duen itsasadarreko argiekin. Horregatik, Tecuni enpresaren argien euskarri teknikoa ontzietarako garrantzitsua izango da estropadaren ibilbidetik zehar.

Irteera Salbe zubian markatuta egongo da. Lehenengo eta hirugarren ziboga Euskalduna Kaian kokatuko dira (Itsas Museoko aurrealdean) eta bigarrena eta helmuga, berriz, hasierako puntuan (Salbe zubia, Guggenheim ondoan).

Antolatzaileek adierazi dutenez, lasterketa original eta erakargarri hau erlojupeko modalitatean izango da eta talde bakoitza ontzi batek ordezkatu du.

EGURALDIA



Larunbatean, zerua hodeitsu agertuko da oro har; Egunaren bigarren partean prezipitazio txikia egingo du. Elur-kota itsasmailan kokatuko da eta egunaren azken orduetan 300 m-ra igoko da. Goizaldean norabide aldakorreko haizea ibiliko da, eta ipar-osagaitik finkatuko da ahul-bizi. Tenperatura minimoak nahikoa jaitsiko dira eta maximoetan, aldaketarik ez. Izotz handia egingo du.

Igandean fronte berri batek eragingo du, eta eguraldiak okerrera egingo du. Zerua erabat estalita egongo da eta etengabe egingo du euria, barra-barra, eta dezente litro pilatuko da metro koadroko.




Euskadiko eskola kiroleko lehiaketa guztiak bertan behera, hotza dela-eta

Bizkaiko Foru Aldundiak ere Eskola Kirola programak astebururako aurrez ikusita zituen jarduera guztiak bertan behera uztea erabaki du. Beraz, ez da kirol jarduerarik izango otsailaren 4ean eta 5ean. Jarduera mota guztiei eragiten die horrek: lehiaketak, hastapenekoak eta jolas jarduerak.

Aldundiak iragarri duenez, gorabeherarik egon ez dadin hartu da erabaki hori, bai hotzaren ondorioz, bai errepide zein instalazioetan egon daitekeen elurraren eta izotzaren ondorioz gerta litezkeen istripuak ekiditzeko.

Gipuzkoan eta Araban berdin egin dute. Beraz, asteburu honetan ez da eskola kirol lehiaketarik izango.

NEWS OF SCIENCE AND TECHNOLOGY



THE DARK SIDE OF THE MOON

A camera aboard a Nasa spacecraft has beamed back pictures of the far side of the Moon, which is hidden from Earth. The new video is about 30 seconds long and shows the far side of the moon as a stark, scarred landscape. Dozens of craters are visible in the field of view.